

# SCREAM STREET

MOMIAREN BIHOTZA



TOMMY DONBAVAND

REGINA LARRUCEAREN ITZULPENA

desclée

# NOR DA NOR...



Luke Watson

Kle Farr



Resus Negatib




Dixon



Ott Handiputz jauna

Samuel Harrisalt





Alston eta Bella  
Negatibo



Eefa Ondobeti



Doug



Kaskezurtegi doktorea



Nilo Fair



Watson Juan-andreak

# Ongi etorri Scream Streetera



A

B

C

D

E

F

G

H

I

J

K

L

M

N

O

P

Q

R

S

T

U

V

W

X

Y

Z

AA

AB

AC

AD

AE

AF

AG

AH

AI

AJ

AK

AL

AM

AN

AO

AP

AQ

AR

AS

AT

AU

AV

AW

AX

AY

AZ

BA

BB

BC

BD

BE

BF

BG

BH

BI

BJ

BK

BL

BM

BN

BO

BP

BQ

BR

BS

BT

# Nor bizi da non...

- |                                   |   |
|-----------------------------------|---|
| <b>A</b> Handipatuz dauretxea     | <b>H</b> 14. zkia: Resus Megatibo       |
| <b>B</b> Plaza nagusia            | <b>I</b> 21. zkia: Efa Ondobeti         |
| <b>C</b> Edabeti                  | <b>J</b> 22. zkia: Kleo Farr            |
| <b>D</b> 2. zkia: Lokatzetatarrak | <b>K</b> 28. zkia: Doug, Turf eta Berry |
| <b>E</b> 5. zkia: Garraiolariak   | <b>L</b> 32. zkia: Babalore Espektro    |
| <b>F</b> 11. zkia: Diralirxo      | <b>M</b> 39. zkia: Kaskezartegitarrak   |
| <b>G</b> 13. zkia: Lake Watson    |   |



## Lehenago Scream Streeten...

Luke Watson mutil arrunt bat zen, baina hamar urte bete zituen egunean gizotso bihurtu zen. Gero, beste bi aldiz eraldatu ondoren, Munstroen Arretarako eta Kokalekuz Aldatzeko Brigaden Organoak (M.A.K.A.BR.O.) Luke eta bere familia Scream Streetera joatera behartu zituen. Scream Streeten mamuak, munstroak, zonbiak eta beste izaki asko bizi dira.

Luke berehala moldatu zen bizileku berrira, eta bi lagun egin zituen: Kleo Farr (momia astakilo bat) eta Resus Negatibo, aldameneko etxean bizi zen banpiro-familiako semea. Hala ere, Luke berehala konturatu zen gurasoek ezingo zutela sekula gainditu Scream Streeteko auzokide beldurgarriekiko izua. Scream Streeteko Kondairak izenburuko liburu zaharraren laguntzaz, Luke sei erlikiaren bila abiatu zen. Erlikia bakoitza Scream Streeten sortzaileetako batek utzi zuen. Lukek erlikia guztien botere bateratua erabiliz soilik ireki ahalko du Scream Streetetik irteteko eta gurasoak etxera eramateko atea.

Dagoeneko banpiro baten letagina eta sorgin baten odolez betetako botilatxo bat lortu ditu eta bere ohearen azpian urrezko kutxa batean ditu gordeta. Orain, Luke, Resus eta Kleo hirugarren erlikiaren bila abiatuko dira, armiarmen beldur ez baldin badira, behintzat...

# Lehenengo Atala

## Borroka



**Trumoi batek** burrunba egin zuen bi gizotsoak aurrez aurre biraka ari zirela, euriak ilajea muskulu tenkatuen kontra zapaltzen zien. Piztiarik txikienak letaginak erakutsi eta ulu egin zuen. Soinuaren oihartzuna kalean behera galdu zen.

Gizotsorik handienak etsaiari eraso egin zion, hozka egiteko prest, baina otso txikiena azkarregia zen hain eraso nabariaz harrapatzeko. Bere burua lurrera bota zuen, atzeko hankak gorantz jarri zituen sabelaldea babesteko eta atzapar zorrotzekin kolpeka hasi zen. Erasotzailea bularraldean jo eta odoletan utzi zuen. Piztiaren ile gorrixka eta lodia odolez tindatu zen une batez, baina euriak garbitu zuen.

Trumoi batek burrunba egin zuen otsoen buruen gainean, eta ekaitzaren pean zeuden beste bi izakitxo bakarrak argiztatu zituen. Egiptoko momiatxo batek tinko eusten zion liburu zilarreztatu bati, eta banpiro gazte bat ezpataz borrokatzen ari zen gizon zaharrago batekin.

—Ez dakit zergatik behar izan dudan hain denbora luzea konturatzeko —bota zuen Otto Handiputz jaunak orroka, pozarren, ezpata banpiroaren buruaren kontra jaisten zuela—. Gizotso bat akabatu nahi baduzu, erabili beste gizotso bat!

Resus Negatibok bere ezpatari heldu eta gora jaso zuen kolpea blokeatzeko.

—Ez duzu Luke sekula garaituko!

Ainuri bat entzun zen, eta gizotso ilegorriak gogor egin zion kosk etsaiari hankan. Gizonak irribarre egin zuen.

—Ni ez nago horren ziur.

Otsorik txikienak kalean atzera egin zuen. Momia ziztuan joan eta ondoan belaunikatu zitzaion.

—Ondo al zaude? —galdetu zion Kleok. Lukek begi horiekin begiratu zion, mutikoaren gizaki-izaera gizotso-itxuraren azpian zegoen ezkutatuta.

Kleok gerrialdeko lotailu-zati bat tarratatu eta Lukeren zauriaren inguruan lotu zuen presaka.



—Ez da asko, baina odol gehiago ez galtzen lagunduko dizu.

Metalezko kolpeen hotsak Kleoren arreta erakarri zuen, eta buelta eman zuenean ikusi zuen Resus kalea atzeraka zeharkatzen ari zela eta ezpatari eutsiz Otto jaunaren eraso basatietatik defendatzen ari zela. Bidearen ertzer a hurbildu ahala, banpiroak zabu egin eta ahoz gora erori zen, eta ugazabaren metalezko arma zorrotzak banpiroaren burua zegoen tokian zementuaren kontra *krask* jo zuen unean bertan mugitu zen albo batera.

